



UNITATEKO ERIZAINZAKO GAINBEGIRALEA
- BLANCA FERNANDEZ and. (1. SOLAIRUA)
- JULIO BENITO jn. (2. SOLAIRUA)
- MARIA DEL MAR CORONADO and. (3. SOLAIRUA)

Mediku arduradunak - VELASCO dk.
- GARCIA dk.
- ORIVE dk.
- CORCUERA dk.

- [ZERBAITEZ OHARTARAZI NAHI BADIGUZU, ERABILI GELAKO TXIRRINA]-



GURE UNITATEKO EGONALDIAN BETE BEHARREKO ARAU OROKORRAK

- Behar duzun guztietan eskatu gure laguntza zure gelako txirrinaren bidez.
- Egunero emango zaizu pijama eta eskuoihal bat. Zure garbiketa pertsonalerako bainugela duzu gela barruan.
- Kontuan izan ospitalea kerik gabeko espazioa dela eta **ERRETZEA DEBEKATUTA DAGOELA**.
- Lagundu ospitale barruan **ISILTASUNA** mantentzen.
- Izan zure gela **TXUKUN** eta unitatean egoteko ezinbestekoa dena soilik eraman: garbitzeko tresnak (zuk ekarri beharrekoak) eta txapinak.



BISITA MEDIKOA

- Ospitaleko egonaldian mediku arduradun bat esleituko zaizu, eta bertara sartzen zarenean jakinaraziko zaizu nor den.
- Medikuen bisitak astelehenetik ostiralera 9:00etatik 13:00etara bitartean izaten dira, gutxi gorabehera.
- Bisita hastean, eta bisita amaitu arte, pazientearen laguntzaileek gelaz kanpo itxaron beharko dute.
- Medikuek pazienteari bere egoeraren eta bilakaera klinikoaren berri emango dio.
- Bisita amaitutakoan emango die informazioa familiakoei.
- Ohiko ordutegiaz kanpo arreta behar izanez gero, guardiako medikuek baloratuko du egoera eta, hartara, eguneko 24 orduetan bermatuko da asistentzia.
- Pazienteak ez du gelatik irten behar medikuaren bisita izan arte, ezta erizainak beharrezko prozedurak egin arte ere.
- Pazienteei buruzko telefono bidezko informazioa 13:13etik 14:30era emango da.



ERREHABILITAZIO-ZERBITZUA

- Egonaldian errehabilitazio-tratamendua behar baduzu, gimnasioa beheko solairuan dago eta fisioterapeuta bat esleituko zaizu zure tratamendurako, betiere errehabilitazioan eta medikuntza fisikoan espezializatutako medikuaren balorazioaren ondoren.



ORDUTEGIAK

OTORDUAK

- 09:00 : Gosaria
- 13:00 : Bazkaria
- 17:00 : Askaria
- 20:00 : Afaria

Zerbitzatu eta 40 minututara jasoko dira erretiluak

EZIN DA KANPOTIK JANARIA EKARRI

BISITAK

- Ez dago bisitetarako ordutegi zorrotzik, baina gomendatzen da gehienez paziente bakoitzeko 2 pertsona izatea.
- Osasun-arrazoik tarteko, haur txikiak ezin dira unitatera sartu.
- Nahi izanez gero, familiako batek 24ak orduak eman ditzake pazientearekin.



BESTELAKO INFORMAZIOA

- Pazienteak edo familiakoek enpresari eta/edo familiako medikuari eman behar dioten ospitaleratzearen EGIAZTAGIRIA harreran jasotzen da (beheko solairuan, bulego medikuen parean), astelehenetik ostiralera goizeko ordutegian.
- **LEZAKO OSPITALEKO TELEFONOA:** 945006900
Gelan deiak 9:00etatik 21:00etara jaso daitezke, baina gelako telefonoa **ez** dago kanpora deitzeko gaituta.
- **BESTELAKO ZERBITZUAK:**
TELEBISTA ikustea doakoa da, baina telebista ikusteko ordutegia errespetatu behar da, 9:00etatik 22:00etara, betiere gelakidearentzat eragozpena ez bada. **Gelatik irtetean itzali telebista, mesedez.**

Zentroak **EZ** du kafetegia-zerbitzurik, baina atarian edariak eta sandwichak banatzeko zenbait makina dago.
- **AUTOBUSEN ORDUTEGIA:** autobusen ordutegiak harrerako oholean daude ikusgai, baina kontuan izan behar da urtearen barruan aldaketak gerta daitezkeela.

ZENTROAK EZ DU EKARTZEN DITUZUN BALIOZKO OBJEKTUEN GAINEKO ARDURARIK, EZTA ZURE ARROPEN NARRIADURAREN GAINEKO ARDURARIK ERE.

PAZIENTEEK ZEIN BISITEK AINTZAT HARTU BEHAR DUTE DEBEKATUTA DAGOELA ZENTROAREN BARRUTI OSOAN ERRETZEA, INDARREAN DAGOEN ARAUDIARI JARRAITUTA.

LEHENBAILEHEN ONERATZEA ETA ZURE EGONALDIA AHALIK ETA ATSEGINENA IZATEA OPA DIZUGU